

Primer premio, compartido, Concurso de Artículos de Humor, Poesía y Ensayo, en euskera, Pyrenaica 1986

Besarkadak eta malkoak

Andoni Arabaolaza

BESARKADAK ETA

Absurdoaren ale irol bakoitza
noiz, nola edo/eta non
pragmatismo hutsean betetzen da?
Xehetasun, hobeintasun, zuhurtasun...
perilaren aurrean.
Erabat seguru.
Anitz amets zeharkatu ondoren,
semaforo gorria.
Izari zurien aritmetika
2πr bortitzean itzulia.

Nor izan da mugatzailea?

Beltz-zuri JAUN

mutiri hori

Kordada apurketaren ondorioz,
bakartate bikoitza
suntsituta geratuz.
Ingurugiro honetatik at,
isilunearen hotsak:
hunkigarriak,
sentikorrak,
nekargarriak,
jakitugarriak...

Nor gehiagokaren jokoan
inork irabazi al du?

Bai, denbora erreala!



Zenbat aldiz 8000
7000
•
•
2000
1000-ak gaindituz

Garaipen Edo,
Baliotsuak. Agian,
Gezaminak.

Batik bat, bateratzaileak:
ahalmen baikor horren fruitua.

Ekintzen jokaera guzti hauek,
amaitutzat jo behar dira?

Ezin ahantzi.

Eskergarriak bederen.
Une honetan izotz hilobian:
Ausnarketa,
Baretasuna,
Sakontasuna...

ZU: K n a
i e t
d r e
e a r
t n p
a u e
s a

Ez konprenitu arren: BETIRARTE!



MALKOAK